

MATRIKULAZIO KANPAINARAKO ARTEZKARITZA KONTSEILUAREN ERABAGIAK (2018-1-17ko batzarrean onartuak eta gero egokituak):

HH 2

Dekretuak agintzen duenaz gain, gure esku dauden puntuak era honetara banatuko dira:

- **HH 3urteetik gorakoak:** Eleizalde tar Luis ikastolako ikasle ohia izatea 1 puntu.
- **HH 2 urtekoak:** Puntuazio ez metagarria.
 - 17-18 ikasturtean ikastolan HH 1eko gelan matrikulatuta egotea eta ikastolara etortzen hasia 1 puntu.
 - Eleizalde tar Luis ikastolako ikasle ohia izatea 0,8 puntu.
 - EHI-ko partaide dan beste ikastola bateko ikasle ohia edo bazkidea izatea 0,5 puntu.

HH 1

1. Baremaziorako irizpideak. Puntuazio ez metagarria izango da.

- | | |
|---|---------|
| • Bazkide erabiltzailea | 7 puntu |
| • Bazkide eta langilea | 6 puntu |
| • Ikasle ohia eta bazkidea | 5 puntu |
| • Ikasle ohia | 4 puntu |
| • Bazkidea / EHI-ko beste ikastola bateko ikasle ohia | 3 puntu |
| • Bermeon erroldatuta | 2 puntu |
| • Mundaka/Bakion erroldatuta | 1 puntu |

OHARRA: hauek guztiak aplikatu ostean ere, berdinketarik balego, dekretuak matrikulaziorako jartzen dituen irizpideak jarraituko genituzke.

2. Adin hauetan plazak baino eskari gehiago balego, jarraipideak:
- a. Gainontzeko kopurua gehiegizkoa bada ditugun baldintzetarako, itxarote-zerrenda zaindu topetik gora.
3. Maila hauetako matrikulazio prozedura:
- a. Sasoi bako bako lehen izena ematen deitu dutenak, geuk deitu kanpainaren hasieraz jakitun jartzeko eta batzarrera edota aurre-matrikula egiten derrigorrez etorri behar direla adierazi.
 - b. Matrikulazio epean aurre-matrikularako beharrezkoak diran datuak batu. Azaldu prozedura zelan izango dan.
 - c. Matrikulazio kanpaina amaitzean, paperak bete dituzten guztiekin lehen zerrenda osatuko da. Hauei baremazioa aplikatuko zaie. Baremazioak apirilaren 23tik 27ra egingo dira.
 - d. Saillkapenaren berri emango zaie gurasoei eta, ezin bada ezetara konpondu, itxarote-zerrenda aterako da.
 - e. Matrikulazio kanpaina amaitu eta gero izena ematen duten guztiak, automatikoki itxaron zerrendan atzeko aldean jarriko dira, ordena errespetatuz.
 - f. Maiatzean matrikulazio formala egin (2tik 18ra). Ordurarte baja emateko aukera dago. Behin matrikula eginda, gehienez iraileko lanean hasitako 3gn egunean eman ahal izango da baja. Egun horretatik aurrerako bajaran ez da onartuko eta, nork plaza hori bete ez balego, kuota ordaindu beharko da. Salbuespenak izango dira: sasoi bako bako lehen jaiotako haurrak, osasun arazo larriak... Urtarrila baino arinago plaza erabili behar da, bestela plaza hori galdutzat joko da eta beste ikasle bati esleituko zaio. Plaza hori nork bete ez balego kuotaren %50a ordaindu beharko dau plaza osatu arte.

HH O URTEKOAK

1. Baremaziorako irizpideak. Puntuazio ez metagarria izango da.

- Bazkide erabiltzailea 7 puntu
- Bazkide eta langilea 6 puntu
- Ikasle ohia eta bazkidea 5 puntu
- Ikasle ohia 4 puntu
- Bazkidea / EHI-ko beste ikastola bateko ikasle ohia 3 puntu
- Bermeon erroldatuta 2 puntu
- Mundaka/Bakion erroldatuta 1 puntu

OHARRA: hauek guztiak aplikatu ostean be, berdinketarik balego, dekretuak matrikulaziorako jartzen dituen irizpideak jarraituko genituzke.

2. Adin hauetan plazak baino eskari gehiago balego, jarraipideak:

- a. Gainontzeko kopurua gehiegizkoa bada ditugun baldintzetarako, itxaron zerrenda zaindu topetik gora.

3. Maila hauetako matrikulazio prozedura:

- a. Sasoia baino lehen izena ematen deitu dutenak, geuk deitu kanpainaren hasieraz jakitun jartzeko eta batzarrera edota aurre-matrikula egiten derrigorrez etorri behar direla adierazi.
- b. Matrikulazio epean aurre-matrikularako beharrezkoak diren datuak batu. Azaldu prozedura zelan izango den.
- c. Matrikulazio kanpaina amaitzean, paperak bete dituzte guztiekin lehen zerrenda osatuko da. Hauei baremazioa aplikatuko zaie. Baremazioak apirilaren 23tik 27ra izango dira.
- d. Saillkapenaren berri emango zaie gurasoei eta, ezin bada ezetara konpondu, itxarote-zerrenda aterako da.
- e. Maila honetarako diren ume asko oraindik jaio barik daudenez, matrikula formala irailean beteko da. Iraileko laneko lehen aste bietan bete beharko dira. Baina epe hori baino lehen baten batek argi baleuka ez duela ekarriko, abisa dezala. **MATRIKULA ORRIA BETETZEN EZ BADA, AURREMATRIKULEA INDARGABETUA GERATZEN DA.**
- f. Irailean, matrikula egiteko epea amaitzean, egun horretatik aurrerako bajarik ez da onartuko ez bada plaza hori nork bete egotea. Inor egon ezean, kuota ordaindu beharko da. Salbuespenak izango dira: sasoia baino lehen jaiotako haurrak, osasun arazo larriak...Urtarrila baino lehenago plaza erabili behar da, bestela plaza hori galdutzat joko da eta beste ikasle bati esleituko zaio. Plaza hori nork bete ez balego kuotaren %50a ordaindu beharko du plaza bete arte.

4. Itxaron zerrenda:

- a. Aurre-matrikula epea amaitzean dagoen eskari kopurua atenditu ezinekoa bada, orduan itxaron zerrenda osatuko da baremazioan lortutako puntuak zainduz (ordena zainduz).
- b. Itxaron zerrenda hau erabili beharra balego, iraileko hirugarren lan egunean hasiko ginateke erabiltzen.
- c. Epe horretatik irailera jende gehiago baletor, bigarren itxaron zerrenda bat egingo genuke. Aparte barematuko genituzke ordena bat ezartzeko
- d. Lehen itxaron zerrenda agortuz gero, bigarren itxarote-zerrenda erabiliko genuke.
- e. Ikasturtea hasita, plazak geratuko balira: Kasu honetan ez legoke itxaron zerrendarik. Beraz, eskari barririk balego, etorri ahala onartuko da eta hasiko litzateke.